



BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGOA

2024KO AURREKONTUAREN MEMORIA

1. KOKAPENA. 2023 URTEAREN LABURPEN BAT.

2022an ezarri ziren laborategiaren egiturazko oinarriak:

- Lantaldea martxan da.
- Egoitzaren egokitzapena amaituta, espazio fisikoa erabilgarri dago.
- Gobernantza eta deliberazioa prototipatu dira eta oinarritzko sistema bat definitu da.
- 2022-24 epealdirako gida estrategikoa onartu da.

2023an gida estrategikoaren eta gobernantza eta deliberazioaren garapenak eman dira.

- Badalaben sei lan ildoak definitu eta lanketak abiatu dira.
- Badalaben lan metodologiaren diseinua garatu da.
- Gobernantza eta deliberazioaren garapenerako 3 batzorde sektorial abiatu dira, euren lehen diseinua definituz.

Laborategiaren egitekoa da etorkizuneko agertoki eta interakzio sistema desberdinetan euskara kokatzen laguntzea, galderak proposatuz, ez-ohiko lankidetzak sustatuz eta hauen zerbitzura espazio, tresna eta esperientzia berritzaileak jarritz. Jardueraren azken hartzaila da euskararen hiztun komunitatea.

Hizkuntzaren biziberritzea, edo bestela esanda, euskararen erabilera sustatzea, testuinguru konplexuan kokatzen da, globalizazioak eta digitalizazioak bete betean zeharkatzen duelarik. Euskara biziberritzea gizarte eraldaketa ariketa da, beraz, aintzat hartu behar da, ere, gizartea geroz eta abiadura handiagoan aldatzen dela, aldaketen sakontasuna, era berean, esponenzialki handitzen delarik.

Testuinguru honetan eragiteko eta palanka berriak identifikatzeko helburuz, Badalabek sei lan ildo

CONSORCIO DE INNOVACIÓN LINGÜÍSTICA BADALAB

MEMORIA DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2024

1. CONTEXTO. UN RESUMEN DEL AÑO 2023.

En 2022 se establecieron las bases estructurales del laboratorio:

- El equipo de trabajo está en marcha.
- Finalizado el acondicionamiento de la sede, el espacio físico está disponible.
- Se ha prototipado la gobernanza y la deliberación y se ha definido un primer sistema básico.
- Se ha aprobado la Guía Estratégica para el periodo 2022-24.

En 2023 se han desarrollado la guía estratégica y los sistemas de gobernanza y deliberación.

- Se han definido las seis líneas de trabajo de Badalab y se han iniciado los trabajos.
- Se ha desarrollado el diseño de la metodología de trabajo de Badalab.
- Se han puesto en marcha 3 comisiones sectoriales para el desarrollo de la gobernanza y la deliberación, definiendo su primer diseño.

La misión del laboratorio es ayudar a situar el euskera en los diferentes escenarios y sistemas de interacción del futuro, proponiendo preguntas, promoviendo colaboraciones poco habituales y poniendo al servicio de ellas espacios, herramientas y experiencias innovadoras. El destinatario final de la actividad es la comunidad vasco parlante.

La revitalización de la lengua, o lo que es lo mismo, el fomento del uso del euskera, se sitúa en un contexto complejo, en el que la globalización y la digitalización lo atraviesan de lleno. Revitalizar el euskera es un ejercicio de transformación social, por lo que también hay que tener en cuenta que la sociedad cambia cada vez a mayor velocidad y que la profundidad de los cambios aumenta exponencialmente.

Con el objetivo de incidir en este contexto e identificar nuevas palancas, Badalab ha definido

definitu ditu, hasieran esan den moduan:

- Etorkizuneko ikuspegiaren lanketa.
- Hitzun komunitatearen gorputzen aniztasunari begiratuko dion ildo.
- Gorputz horien harremanari begiratuko diona.
- Gizarte digitalean, teknologiak eta plaza digitalek hizkuntzaren biziberritzeari eta hitzun komunitateari egin diezaiekoten ekarpenari begiratuko dion ildo.
- Komunikazioa bera eta komunikazioari erpin desberdinetik begiratuko dion lan ildo.
- Erreteria laborategia. Nola uztartzen ditugu aurreko ildo guztiak maila lokalean? Honek zein ekarpen egin diezaieke estrategia globalagoei?

Lan ildo hauek elkar loturik, elkar igurtzian, txirikordaturik baino ez ditu ulertzen laborategiak. Proposatzen diren egitasmoek ildo guztiak ikutzen dituzte zelabait, baina lan ildo horietako batetik abiatzen dira nagusiki.

Lan ildo hauen garapenerako, eta Badalaben jarduna bera antolatzeko, lan prozesu edo metodologia baten lehen diseinua garatu da. 5 urrats edo geltoki ditu honek.

- Arakatu. Zein da abiapuntua? Zer ari da gertatzen? Non dago mundua? Eta norantz doa? Zein eragile mapa dago? Zein indargune, ahulgune, aukera, hutsune daude?

Momentuz lantaldeak mantentzen dituen elkarrizketek, bilerek, esplorazioek edo gertuko aliatuen bidez datozenek osatzen dute prozesu hau.
- Hausnartu. Elkarrekin pentsatzeko espazioa. Adimen kolektiboa. Egoitzan aliatu desberdinekin batera antolatu dira urtean zehar hausnarketa saio desberdinak.
- Hasi. Zein ideia edo lanketa ildo nahi dugu abiatu? Nola bide eman ohiko markoetan tokirik ez daukaten ideiei? Nola erakarri ohikotasunean hizkuntzaren auzian ari ez direnak? Nola landu eskuartean ditugun erronkak beste erpin batetik? 2023an tresna nagusia izan da beka deialdien

seis líneas de trabajo, como se ha comentado al principio:

- Elaboración de la visión de futuro.
- Una línea que contemple la diversidad de cuerpos de la comunidad lingüística.
- Una tercera línea donde se trabajará sobre la relación entre estos cuerpos.
- En la sociedad digital, una línea que explorará la aportación que pueden hacer la tecnología y las plazas digitales a la regeneración de la lengua y a la comunidad hablante.
- La propia comunicación y una línea de trabajo que contemple la comunicación desde un vértice diferente.
- Laboratorio Erreteria. ¿Cómo combinamos todas las líneas anteriores a nivel local? ¿Qué puede aportar esto a estrategias más globales?

El laboratorio sólo entiende estas líneas de trabajo entrelazadas, en relación, trenzadas. Los proyectos que se proponen afectan a todas las líneas, pero parten principalmente de una de ellas.

Para el desarrollo de estas líneas de trabajo y para la organización de la propia actividad de Badalab se ha desarrollado el primer diseño de un proceso o metodología de trabajo. Consta de 5 pasos o estaciones.

- Explorar. ¿Cuál es el punto de partida? ¿Qué está pasando? ¿Dónde está el mundo? ¿Y hacia dónde va? ¿Qué mapa de agentes hay? ¿Cuáles son las fortalezas, debilidades, oportunidades, lagunas?
Este proceso se completa con entrevistas, reuniones, exploraciones o con aliados cercanos que el equipo mantiene por el momento.
- Reflexionar. Espacio para pensar juntos. Inteligencia colectiva. A lo largo del año se han organizado diferentes sesiones de reflexión con diferentes aliados.
- Iniciar. ¿Qué ideas o líneas de trabajo queremos emprender? ¿Cómo dar paso a ideas que no tienen cabida en los marcos tradicionales? ¿Cómo atraer en la rutina a quienes no están en la cuestión lingüística? ¿Cómo abordar los retos que nos planteamos desde otro vértice? En

publikazioa.

- Hazi. Nola eraman beste puntu batera abian diren aukera edo ideia horiek? Garatzeke.
- Hedatu. Ikasketak jaso, ikasketak partekatu. Ikasketak eskalatu. Aukerak zabaldu. Lehen hurbilpenak egin dira 2023 urtean, baina sistema garatzeke dago.

Lan ildoak metodologiarekin erkatuz, 2023an garatu dira:

- Etorkizuneko ikuspegia. "Itzultzeko eskubidea" fabula publikatu da. "Etorkisuneku" beka deialdia publikatu da.
- Gorputzak. Erreterian lokalizatu da nagusiki. Arakatzek eta hausnarketak eduki dute presentzia nagusia. Badalaben espazioan kokatuko den artefaktu artistiko bat iritsiko da azaroan, aurrekoaren lehen gorpuztea ekarriko duena.
- Harremanak. Gobernu batzordeko kideekin lankidetzak bilatzea lehentasunezkoa izan da, baita ekosistemarekin aritzeko batzordeen artikulazioa ere. Hauen lehen diseinua garatuko da 2023 urtean.

Garrantzia handia izan du, ildo honi dagokionean, botere harremanen eta zaintza sistemen behaketak. Aurreikusten da Badalaben garapenean giltzarrietako bat hemen egon daitekeela, izan ere, laborategiaren lehentasuna da hiztun komunitatea elikatuko duen ekosistema artikulatzea. Ekosistema horrek denentzat espazio seguru izateko bokazioa dauka.

- Gizarte digitala. Arakatzek eta hausnarketa esparruetan aritu da nagusiki. Eragile mapa ulertu, teknologiaren (eta hizkuntza teknologien) egungo egoera ulertu, eragile mapa ezagutu. Elkarrekin pentsatzeko espazioak sortu dira adimen artifiziala eta sare sozialen esparruan eta lerro hauek idatzi diren momentuan beka deialdia dago zabalik, "Adimen artifiziala auzitan".

Sortzaile digitalak hasi dira euren balio proposamena eta komunitatea indartzeko

2023 la publicación de las convocatorias de becas ha sido el principal instrumento.

- Crecer. ¿Cómo trasladar esas oportunidades o ideas que están en marcha a otro punto? Pendiente de desarrollo.
- Expandir. Recibir estudios, compartir estudios. Escalar los estudios. Ampliar opciones. Se han realizado las primeras aproximaciones en el año 2023, pero el sistema está por desarrollar.

Comparando las líneas de trabajo con la metodología, se han desarrollado en 2023:

- Visión de futuro. Se publica la fábula "Derecho a la devolución". Publicada la convocatoria de becas "Etorkisuneku".
- Cuerpos. Localizado principalmente en Erreteria. La exploración y la reflexión han tenido su presencia principal. En noviembre llegará un artefacto artístico que se situará en el espacio de Badalab y que dará lugar al primer cuerpo del anterior.
- Relaciones. La búsqueda de colaboraciones con los miembros de la Junta de Gobierno ha sido prioritaria, así como la articulación de las comisiones de actuación con el ecosistema. En el año 2023 se desarrollará el primer diseño de las mismas.

Ha sido muy importante, en este sentido, la observación de las relaciones de poder y de los sistemas de vigilancia. Se prevé que una de las claves en el desarrollo de Badalab pueda estar aquí, ya que la prioridad del laboratorio es articular un ecosistema que alimente a la comunidad hablante. Este ecosistema tiene vocación de ser un espacio seguro para todos.

- Sociedad digital. Se ha centrado en los ámbitos de exploración y reflexión. Comprender el mapa de agentes, comprender la situación actual de la tecnología (y las tecnologías lingüísticas), conocer el mapa de agentes. Se han creado espacios para pensar juntos en el ámbito de la inteligencia artificial y las redes sociales y en el momento de redactar estas líneas está abierta la convocatoria de becas "Inteligencia artificial auzitan".

Los creadores digitales han comenzado a trabajar en Badalabe para fortalecer su

Badalaben lanketak egiten, eta emaitza ukigarria izan zen galiziar komunitate batekin egindako Twitch zuzeneko bat. Hedapenaren ikuspegitik, Ikusgelarekin elkarlanean udazkenean teknologiar lotutako bideo pedagogikoak publikatu dira.

- Komunikazioa. Laborategiaren beraren komunikazio estrategiaren diseinutik abiatuta, etorkizuneko komunikazio sistemak, kanalak edo estrategiak eta profilak nolakoak izan behar lirakeen irudikatzen hasteko bidea hasi da. 2deorekin batera abiatuko da arakatze eta hausnarketa prozesua 2023ko udazkenean.
- Erretereria laborategia. Esfortzu nagusia arakatzeari eskaini zaio. Jatorri edo kultura desberdineko komunitateek hizkuntzari lotutako dauzkaten sinismenak, errelatoak, narratibak ezagutzeko prozesua abiatu da, Erretereriako aniztasuna ezagutu eta bertako eragile, erakunde, elkarte, pertsonekin harremana abiatzea lehentasunezkoa izan da. Emaitza ukigarriak asko dira, baina azpimarragarriak izan daitezke Udalarekin eta bertako departamentu desberdinekin abiatutako elkarlan emankorra edo eragile desberdinekin lortu den konplizitatea. Horren emaitza da Gipuzkoa Arigune eta Aldahitz metodologiaren baitan kokatzen den esperimenziorako bi talde abian jartzeko dagoen aukera ukigarria.

2. 2024KO AURREKONTUAK OSATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDE NAGUSIAK:

2023 urtean abiatutakoen jarraipena eta garapena aurreikusten da 2024 urtean.

Edozein kasutan, bi urtez tokia topatzen, lantaldea eratzten, lan moldeak definitzen igaro ostean, 2024 urtean izan beharko litzake Badalaben egonkortze urtea.

Aurrekontuak eratzeko irizpide nagusiak lan ildoek eta lan metodologiak gidatuko dituzte.

- Arakatze eta prospekzio sistemen definizioa. Honen antolaketak bi elementu izango ditu. Lankidetzak eta aurrekontuzko

propuesta de valor y comunidad, y el resultado fue tangible un Twitch directo con una comunidad gallega.

Desde el punto de vista de la difusión, en otoño se han publicado en colaboración con Ikusgela vídeos pedagógicos relacionados con la tecnología.

- Comunicación. A partir del diseño de la estrategia de comunicación propia del laboratorio, se ha iniciado el camino para comenzar a imaginar cómo deberían ser los sistemas, canales o estrategias y perfiles de comunicación del futuro. El proceso de exploración y reflexión se inicia con 2do en otoño de 2023.
- Laboratorio Erretereria. Se ha dedicado a explorar el esfuerzo principal. Se ha iniciado un proceso para conocer las creencias, los relatos, las narrativas de comunidades de diferentes orígenes o culturas relacionadas con la lengua, conocer la diversidad de Erretereria y establecer relaciones con sus agentes, instituciones, asociaciones, personas ha sido prioritario. Los resultados tangibles son muchos, pero pueden destacarse la fructífera colaboración con el Ayuntamiento y sus diferentes departamentos o la complicidad con los diferentes agentes. El resultado es una oportunidad tangible para la puesta en marcha de dos grupos de experimentación enmarcado en la metodología Gipuzkoa Arigune y Aldahitz.

2. PRINCIPALES CRITERIOS UTILIZADOS PARA ELABORAR LOS PRESUPUESTOS DE 2024:

Se prevé el seguimiento y desarrollo de los iniciados en el año 2023 en el año 2024.

En cualquier caso, después de dos años encontrando sitio, formando equipo de trabajo, definiendo los modos de trabajo, el año de estabilización de Badalab debería ser en 2024.

Las líneas de trabajo y la metodología de trabajo guiarán los principales criterios de elaboración de los presupuestos.

- Definición de sistemas de exploración y prospección. Su organización constará de dos elementos. Colaboraciones e



inbertsioa. 2024ean nagusiki helduko zaio lankidetzen atalari. Dagoeneko abian dena Badalabekin nola lotu esploratuko da, baita hauetatik eratorritako hutsune eta beharren identifikazioa egingo ere. Ez da aurreikusten inbertsiotarako aurrekonturik.

- Hausnarketa. Sistematizatuko da laborategiko egoitzan elkarrekin hausnartzeko dinamika. Lan ildo bakoitzari lotutakoak zein lan ildoen arteko intersekzioetan esploratzera bideratutakoak. Bilatuko da elkarlan desberdinen emaitza izan daitezen.
- Hasi. 2023 urtean abiatukoaren bidetik, beka deialdiak izango dira tresna nagusi. 4na beka aurreikusten dira "Etorkizuneko ikuspegia", "Gorputzak", "Gizarte Digitala" eta "Komunikazioa" lan ildoetan.
- Hazi. Beka deialdietatik eta Batzordeen dinamikatik etor daitezkeen aukerek baldintzatuko dute urrats honen garapena.
- Hedatu. 2024 urtea salto kualitatiboaren urtea da. Badalaben komunikazio estrategia erabat martxan egongo da. Erronka nagusiak dira prozesu desberdinetatik eratorritako ezagutza era eraginkorrean jasotzea eta hedapen kanal biderkatzaileak topatzea, baita aurreko prozesuetatik eratorritako potentzialdun ideia edo proiektuak eskalatzen asmatzea.

Berrikuntza nagusia eta aurrekontuetan pisu handia izango duena da Batzordeen kudeaketarako aurreikusten den diru partida. Batzordeen dinamika egoki aktibatzekeo dugun gaitasunaren baitakoa izango da honen emaitza.

2024ko aurrekontua kapituluz kapitulu xehetuta:

I KAPITULUA:

Badalaben lantaldea 2022 urtean zehar osatu zen. Estrukturalki 3 dira laborategiaren lantaldea osatzen duten pertsonak, zuzendaria bi berrikuntza eragilerekin batera.

2023 urtean abiatutako moduan, oinarritzko soldatez gain, aurreikusten da partida bat

inversión presupuestaria. En 2024 se abordará principalmente el apartado de colaboraciones. Se explorará la conexión de lo que ya está en marcha con Badalab, así como la identificación de lagunas y necesidades derivadas de las mismas. No se prevén presupuestos para inversiones.

- Reflexión. Se sistematizará la dinámica de reflexión conjunta en la sede del laboratorio. Las relacionadas con cada línea de trabajo, así como las orientadas a la exploración en intersecciones entre líneas de trabajo. Se buscará que sean fruto de diferentes colaboraciones.
- Iniciar. En la línea de lo iniciado en el año 2023, las convocatorias de becas serán el principal instrumento. Se prevén 4 becas en las líneas de trabajo "Visión de futuro", "Cuerpos", "Sociedad Digital" y "Comunicación".
- Crecer. El desarrollo de este paso estará condicionado por las posibilidades que puedan surgir de las convocatorias de becas y de la dinámica de las Comisiones.
- Expandir. El año 2024 es el año del salto cualitativo. La estrategia de comunicación de Badalab estará plenamente operativa. Los principales retos son captar de forma eficaz el conocimiento derivado de los diferentes procesos y encontrar canales multiplicadores de difusión, así como aprender a escalar ideas o proyectos con potencial derivados de procesos anteriores.

La principal novedad y de gran peso presupuestario es la partida presupuestaria prevista para la gestión de las Comisiones. El resultado dependerá de nuestra capacidad para activar adecuadamente la dinámica de los comités.

El presupuesto 2024 detallado capítulo por capítulo:

CAPÍTULO I:

El equipo de Badalab se constituyó durante el año 2022. Estructuralmente son 3 las personas que forman el equipo de trabajo del laboratorio, la directora junto con dos agentes de innovación.

Al igual que en el año 2023, además de los salarios base, se prevé una partida destinada a



lantaldearen ongizatea bermatzeko helburua duena, adibidez, garraio publikorako eta elikadura osasuntsurako bonoak.

II KAPITULUA:

Gastu arruntak lau bloke nagusitan bereizi daitezke:

- Egoitza eta funtzionamendu gastuak. Errenteriako Madalen kaleko 27an kokatzen den egoitza fisikoaren alokairua eta Badalab funtzionamenduan mantentzeko beharrezko gastuei dagokie (hornidurak, aseguruak,...).
- Lantaldeak kudeatzekoa. Nagusiki bideratuko dira lantaldearen lan muskuloa indartzera. Partida esanguratsua aurreikusten da komunikazioaren eta hedapenaren esparrua osatuko duen zerbitzua kontratatzeko, eta gainontzekoa ezagutza desberdinetan aholkularitza kualifikatua kontratatzea bideratuko da nagusiki. Lantaldeko kideen formakuntzak ere aurrekontuan tokia du. Kontuan hartu beharrezkoa da diru poltsa espezifiko aurreikusi dela BadaPlazan gertatzea bilatuko diren hausnarketa saio kolektiboak antolatzeko, zeintzuen helburua den normalki elkarrekin arituko ez direnen arteko igurtzia sustatzea. Urtean zehar bidean sortzen diren aukerak baliatzeko diru poltsa batek osatzen du gastu atal hau.
- Hirugarren partida sortzen ari garen hiru batzordeetako bakoitzaren kudeaketara bideratua. Gastu partekatua deitu diogu honi.
- Azken partida bat, ez oso esanguratsua, baina aipagarria, eguneroko gastuetarako aurreikusi da. Bulegoko materialen eta bestelako hornidurak nagusiki.

IV KAPITULUA:

Badalaben bokazioa da lehenetsunez

garantizar el bienestar del equipo de trabajo, como los bonos de transporte público y alimentación saludable.

CAPÍTULO II:

Los gastos corrientes pueden dividirse en tres grandes bloques:

- Gastos de residencia y funcionamiento. Corresponde al alquiler de la residencia física sita en la calle Magdalena 27 de Errenteria y a los gastos necesarios para mantener en funcionamiento Badalab (suministros, seguros...).
- Gestión de equipos de trabajo. Se orientarán principalmente a reforzar el trabajo muscular del equipo de trabajo. Se prevé una partida significativa para la contratación de un servicio que complemente el ámbito de la comunicación y la difusión, y el resto se destinará principalmente a la contratación de asesoramiento cualificado en diferentes conocimientos. La formación de los miembros del equipo de trabajo también tiene cabida en el presupuesto. Hay que tener en cuenta que se ha previsto una bolsa específica de dinero para organizar las sesiones colectivas de reflexión que se buscarán que se celebren en la Plaza, cuyo objetivo es promover la fricción entre quienes no actuarán normalmente juntos. Se trata de una bolsa de dinero para aprovechar las oportunidades que se generan a lo largo del año.
- Una tercera partida destinada al presupuesto puesto a disposición de cada uno de los tres Comités que se están creando. Le decimos gasto compartido.
- Una última partida, no muy significativa, pero relevante, está prevista para gastos diarios. Principalmente materiales de oficina y otros suministros.

CAPÍTULO IV:

La vocación de Badalab es animar a que lo hagan



ekosistemako kideek egin dezaten eragitea, aukerak sortzea. Horregatik, kapitulu honetan aurreikusten dira:

- Gradu amaierako proiektu bat.
- Aurretik aipatutako 4 beka deialdiak (16 beka)

4. BESTELAKO FINANTZIAZIOA

GFAk Badalaben egingo duen ekarpenari gehitu behar zaio Errenteriako Udalak egingo duena.

Esploratuko dira bestelako finantzazio bideak.

preferentemente los miembros del ecosistema, crear oportunidades. Por ello, se prevén en este capítulo:

- Un proyecto fin de grado.
- Las 4 convocatorias de becas anteriormente citadas (16 becas)

4.- FINANCIACIÓN ADICIONAL

A la aportación de la DFG a Badalab hay que añadir la que realizará el Ayuntamiento de Errenteria.

Se explorarán otras vías de financiación.

BADALAB
2024KO ADMINISTRAZIO AURREKONTUA / PRESUPUESTO ADMINISTRATIVO 2024

| Gastuak/Gastos | Zenbatekoa Importe | Sarrerak/Ingresos | Zenbatekoa Importe |
|--|-----------------------|---|-----------------------|
| 1.- Langileria gastuak / Gastos de personal | 204.545,25 | 1.- Zuzeneko zergak / Impuestos directos | |
| 2.- Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak / Gastos corrientes en bienes y servicios | 302.554,75 | 2.- Zeharkako zergak / Impuestos indirectos | |
| 3.- Gastos financieros / Finantza gastuak | 29.200,00 | 3.- Tasak eta bestelako dirusarrerak / Tasas y otros ingresos | |
| 4.- Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | | 4.- Transferentziak arruntak / Transferencias corrientes | 536.300,00 |
| 5.- Kontingentzietarako eta beste ezusteko batzuetarako funtsa/ Fondo de contingencia y otros imprevistos. | | 5.- Ondare sarrerak / Ingresos patrimoniales | |
| Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes. | 536.300,00 | Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes. | 536.300,00 |
| 6.- Inbertsio errealak / Inversiones reales | | 6.- Inbertsio errealak besterentzea / Enajenación de inversiones reales | |
| 7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital | | 7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital | |
| Kapital eragiketak, guztira Total operaciones de capital | | Kapital eragiketak, guztira Total operaciones de capital | |
| 8.- Finantza aktiboak/ Activos financieros | | 8.- Finantza aktiboak/ Activos financieros | |
| 9.- Finantza pasiboak Pasivos financieros | | 9.- Finantza pasiboak Pasivos financieros | |
| Finantza eragiketa, guztira Total operaciones financieras | | Finantza eragiketa, guztira Total operaciones financieras | |
| Guztira/Total | 536.300,00 | Guztira/Total | 536.300,00 |